

Ideia zaparrada 2013



**Bergarako
udal
ekipamenduei
buruzko
zenbait
proposamen**

Txinpartak 9700

Aurkibidea:

1.

Erabilera anitzekoen antzoki berriaren ezaugarriak jakiteko azterketa teknikoa egitea

2.

Udal pilotalekua erabilera anitzeko espazioa bihurtzeko proposamena

3.

Seminarioan karpa berria jartzea eta lehengoa beste tokietan jartzea

Ideia zaparrada 2013 Bergara

1

**Erabilera anitzekoen
antzoki berriaren
ezaugarriak jakiteko
azterketa teknikoa egitea**



Aurrerakinak

Bergara herriak, gure inguruko edozein herrik bezala, bertuteak eta akatsak ditu, baina bada arlo bat benetan atzean geldituta dela, ez bakarrik gure tamainako herriekin konparatuta, baizik eta herri txikiagoekin ere konparatuta. Hau da: antzoki baten falta.

Lehenengo orriko argazkian benetan irudi tristea jarri izan nahi dut: 2012ko Mariaren Lagundiko antzokiaren errauspena; 600 ikusleendako antzeztoki ederra, aspaldi zabor bihurtuta. Baina hau azkenengotariko adibidea da soilik, aurretik Novedades aretoa, Irala zinea, Seminarioko zinea...

Gehiegi ez luzatzeko eta garbiago adierazteko, hurrengo irudian adierazi nahi izan dut nola izan den **1980tik Bergarako kultur ekipamenduen garapena** (geroago eta exkaxagoa). Ezkerreko zutabean, berriz, sasoi berean zenbat talde loratu diren. Azterketa hau musika arloan oinarrituta dago, batez ere, eta ongi ikusten da musika jarduera goraka joan dela argi eta garbi eta ekipamenduak berriz, orain dela hogeita hamar urte baino askoz ere murriztagoak.



Bergarako udal ekipamenduei buruzko zenbait proposamen

Txinpartak 9700

Bergara “herri musikala” dela esaten da askotan. Agian norbaitek pentsa dezake hau funtsa gabeko topiko bat dela soilik. Ez naiz oinarrituko Bergarako tradizioan eta bere talde musikalek izan duten eta daukaten “ospe eta faman”, datu objektibo bat adieraziko dut bakarrik.

1989an sortutako Bergarako Musika Eskolak aurtan 570 ikasle ditu. Gure ondoan, Arrasate herriak izen handiko musika eskola du, gurea baino aurretik sortua eta erdua izan dena betidanik: Arrasate Musikal, 530 matrikula dauka musikan. Herri bakoitzeko matrikulazioa biztanleriarekin proportzioa eginez gero ematen du **Bergarak 3,9 matrikula duela 100 biztanleko eta Arrasatek 2,4**. Beste hainbat eta hainbat herriekin konparazioak eginda, proportzio hau adierazgarriagoa izango litzateke oraindik, zalantzarik gabe.

Nola adierazi da bergararrok musikarekiko dugun maitasuna, herrian egin diren azpiegituretan konparatuta?... Galdera erretoriko honek ez du behar erantzunik. Aurrean jarritako eskemari buruzko argibide batzuk adieraziko ditut.

Azkeneko hogeit hamar urtetan honako **ekipamendu hauek desagertu dira**:

- Irala zinea
- Novedades antzoki-zinea
- Mariaren Lagundiko antzoki-zinea
- Seminarioko antzoki-zinea
- Seminarioko eliza. Emanaldiak egiteko erabiltzen zen
- Batzar aretoa. Berregokitze obra egin eta gero ia aukera guztiak galdu ditu kontzertuak emateko

Mantentzen dira areto hauek:

- Zabalotegi. Ondo berregokituta baina oso edukiera murriztarekin.
- Frontoia. Kirol ekipamendua dena, izatez
- San Pedro eliza. Ekipamendu erlijiosoa dena, izatez.
- Santa Marina eliza. Ekipamendu erlijiosoa dena, izatez.

Sasoi honetan **gehitu dira** honako hauek:

- Mariaren Lagundiko eliza. Ekipamendu erlijiosoa dena, izatez
- Sierbetako eliza. Ekipamendu erlijiosoa dena, izatez
- Hospitaleko eliza. Ekipamendu erlijiosoa dena, izatez (entsaiatzeko)
- Musika Eskola. Mariaren Lagundiak lagatako edifikazioan.
- Jubilatuen egoitza. Abesbatza entsaiatzeko.

Datoak horrela zerrendatuta ez baldin badira nahikoa adierazgarriak, beste zenbait datu ikusgai jarriko ditut.

Bergarako Udal Musika Bandak, ia 200 urteko historiarekin eta Euskal Herriko onenetakoa dena, ez du entseatzen udaleko eraikin baten, Musika Eskolari Mariaren Lagundiak lagatako espazio baten baizik, beste talde mordoxkarekin konpartituta gainera, honek dakarren eragozpenekin.

Bergarako Orfeoiak, ia 100 urtean zehar Bergara herriko izena leku denetan eraman izan duen abesbatzak, ez du espazio propiorik entseatzeko. Santa Marina parrokiak lagatako lokal baten jarduten dute eta, gainera, espazioak ez du betetzen gutxienezko baldintzak hozberoaren aldetik. Berdin gertatzen da **Orfeoi Gaztearekin**.

Aritzeta abesbatzak eta **Alai Taldeak** Ospitaleko elizan entsaiatzen dute Erresidentziak lagata.

Herri askotan, musika eskolak udalekoak izaten dira, beste batzuetan ez, baina gehienetan herriko musika eskolek erabiltzen dituzten eraikinak udalenak izaten dira. Bergaran, aldiz, ez da hori gertatzen. **Begarako Musika Eskolak**, 570 ikasle duen akademia, ospe handiko eskola, Mariaren Lagundiak dohain lagatako espazio baten ematen ditu asignatura guztiak. Gainera, bere areto handiena Bandarekin eta Orkestrarekin konpartitu behar du.


Begarako Orkestra Sinfonikoak, herriko orkestra egonkor eta amateur bakarrenetarikoa, 25 urte baino gehiagoko ibilbide disdiratsuaz, Udal Musika Banda eta Bergarako Musika Eskola talde mordoarekin konpartitu behar ditu bere entsegu aretoa.

Urte askotan zehar Bergaran antolatu dira **ikuskizun eszeniko-musikalak** eta ez dute izan eragina herrian bertan bakarrik, denak Euskal Herriko antzoki onenetan ikusi izan ahal dira: Kursaal, Euskalduna, Baluarte... Garbi laga behar da momentu honetan hau dela posible herriko enpresari batek dohainik lagatzen duelako **pabilioi industrial bat**, bestela ezinezkoa izango zen horrelako ikuskizunak muntatzea.

Oso jakinekoea da eta zabaldua dago Bergara antzokiaren faltan dagoela baina aurreko datuen arabera panorama zeharo samingarria dela esan dezakegu eta baita ere tropelaren azkeneko postuetan gaudela, argi eta garbi.

Lehentasunak, krisialdiak (oraingoa eta aurretik izandakoak)... argudio asko erabili izan dira justifikazioak emateko egoera beltz honi baina, berriz irudiak erabiliz, argudio hauek bertan behera uzten dira, nolabait.

Honako hauek sasoi birberan Bergaran egin edo **egokitu diren zenbait ekipamendu**:



Begarako udal ekipamenduei buruzko zenbait proposamen

Txinpartak 9700



Bergarako udal ekipamenduei buruzko zenbait proposamen

Txinpartak 9700

Kirolak izan du lehentasuna, zalantzarik gabe baina, **artista plastikoek** ere, musika zaleek baino jaramon gehiago izan dute.



Uste dut musikariek eta musika zaleek badituztela kexatzeko arrazoiak, bidegabekeri edo *agrabio* konparatiboa oso nabarmena baita. Talde instrumentalak, abesbatzak eta musika akademiak batuta ekipamendu gabezi hau mila musika praktikatzaileari afektatzen zaio, gutxi gora behera. Ikusle eta musika entzule, berriz, kontaezinak dira Bergaran. Hala ere, aitortu beharra dago, **rock musika praktikatzen dutenek** sorte gehiago izan dutela.



Bergarako udal ekipamenduei buruzko zenbait proposamen

Txinpartak 9700

Idea zaparrada 2013 Bergara

2

Udal pilotalekua erabilera anitzeko espazioa bihurtzeko proposamena



Memoria

Bergarak defizit handia dauka bere kultura ekipamenduetan. Aspaldi frontoia bihurtu da herriko antzoki garrantzitsuena. Bertan herriko eta kanpoko taldeen kontzertu egiten dira eta ikuskizunak ere bai. Hala ere, frontoia kirola egiteko instalazioa da eta ez du betetzen baldintza guztiak ikuskizunak antolatzeko.

Oso urrun ikusten da antzoki berri bat izatea eta irtenbide moduan proposatzen da frontoian hobekuntzak egitea eta, nolabait, espazio mistoa bihurtzea.

Lan hau egiteko beste herri baten dagoen instalazioa aztertu da: **Araia (Araba) herriko frontoia** kiroldegia ere bada eta 2008an instalazio bat gehitu zioten bertan kontzertuak eta antzezlanak aurkezteko.

Frontoi baten kantxa oso espazio handia eta altua da. Antzeztoki baten kaxa eszenikoaren ezaugarri garrantzitsuena hori da hain zuzen: oso espazio altua izaten da eta goialdean burdinazko estruktura du, “parrilla” deitzen dena (“peine” ere bai). Estruktura hau oso akzesiblea da eta bertatik behar diren instalazio guztiak zintzilikatu daitezke.

Honekin lortzen dena da askoz ere errazago muntatzea egin beharreko ekitaldiak, kanpoko estrukturarik ekartzea beharrezkoa ez delako. Gainera parrillan bertan, behar diren instalazio elektrikoak ere sartzten dira. Horrela ikuskizuna muntatzeko nahikoa da bara batzuk muntatzea eta bara horietatik argiak, telak edo beste elementuak zintzilikatzea.

Proiektu honetan hiru mailako estruktura planteatzen da:

Habe nagusiak: 400 mm-koak. Frontoiko horma eta estruktura nagusia izango da bere euskarria.

Estruktura habeak: 250 mm-koak. Habe nagusia euskarria izanda.

Parrilla: 8 mm-ko U alderantzikatuak. 8 cm-ko distantziarekin.

Honekin lortzen da edozein antzeztokitan egoten den parrilla gure frontoian ere izatea. Barak izan ditzakegu beti muntatuta edo oso eskura. Kontuan hartu behar da frontoian badagoela altura margena hau egiteko zeren eta altura **pilotako arauzko altura 12 metrokoa** da.

Lan hau egiten ari nintzenean jakin dut badagoela beste eredu bat oso interesgarria: **Gernikako Jai-Alai frontoia**. 1.500 ikusle hartzen duen espazio honek **telo mugikorrak** ditu, horizontalak eta bertikalak, akustika hobetzeko eta ikuskizun hobeak antolatzeko.

Idea zaparrada 2013 Bergara

3

Seminarioan karpa berria jartzea eta lehengoa beste tokietan jartzea



Memoria

Igerilekuen obrak hasi zirenean Udalak behin-behineko karpa bat instalatu zuen kanpoko igerilekuan instalazioen erabilera ez mozteko. Karpa honen neurriak hauek dira:

Luzera: 30 m
Zabalera: 15 m
Altuera: 3 m/5,40 m
Azalera: 450 m²

Bere funtzioa bukatu zuenean karpa hori Labegaraietan jarri zen, tenis kantxa estaltzeko. Dirudienez tenislarietara ez zitzaien gehiegi gustatu estali hau oso baxua baitzen.

Orain dela gutxi "ibiltari" bihurtu den karpa hau Seminarioko patioan jarri da. Segur aski herriko agintariek ondo pentsatuko zuen erabaki hau, baina Ideien Zaparrada konkurtsoak ematen duen aukera aprobetxatuz, nire kritika eta beste proposamena adieraziko dut.

Seminarioan jarri den karpa, ondo bete zuen igerilekuan zuen funtzioa baina kirola egiteko oso baxua da eta, Labegaraietan gertatu zen bezela, Seminarioan ere oso murrizta izango da bere erabilera.

Proposatzen dut beste moduko karpa egitea. Erreferentzia egokiena esku-baloiko kantxa da (40x20), futbitokoa berdina dena. Eskubaloikoa, boleibolekoa eta tenisekoak txikiagoak dira. Altuera, berriz, 7,50 metrokoa izan behar da gutxienez kirola modu egokian egiteko.

Aurrekoa kontuan hartuta neurri hauek proposatzen dira:

Luzera: 50 m
Zabalera: 24 m
Altuera: 7,50 m/11,00 m
Azalera: 1.200 m²

Bi enpresen modeloak aztertu dira: Carpatec eta Arquitectura Textil. Carpatec enpresak egiten du horrelako modelo baina bere aurrekontua oso altua da. Arquitectura Textilek, berriz, badu oso modelo egokia baina bere altuera 5 metrokoa da hegalean. Oso prezio ona duenez proposatzen da modelo hau erabiltzea baina bere altura igo egin behar da estruktura metaliko batekin.

Hurrengo fase moduan planteatzen da graderio desmuntagarria jartzea bere estaliarekin.

Proposamen hau ez dago planteatuta kirol erabilerarako soilik. Horrelako instalazio bat beste erabilera publiko interesgarriak izan ditzake: jarduera kulturalak, emanaldiak, azokak edo edozein jai antolatzeko. Oso egokia izan daiteke ere espazio aldizkakoa izateko giro txarra dagoenean, adibidez Olentzero eguna edo, azkeneko Pentekoste jaietan egin duen eguraldia berriz eginez gero adibidez, hainbat eta hainbat gauzetarajo.